



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko maiatzaren 3a

64. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Unibertsitatean beren ikasketak jada egiten ari diren ikasleei datozen urteetan zuzenduko zaizkien beka-deialdietarako Hezkuntza Departamentuak baliatuko dituen irizpideei eta aurreikuspenei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, lan-prekarietatea eta ezbehar-tasa murrizte aldera Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak hartutako neurriei buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (4. or.).
- Galdera, “¿Qué es un Rey para ti?” eskola-lehiaketari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (4. or.).
- Galdera, funts publikoekin ordaindutako Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan haurrak 2017-2018 ikasturterako onartzeko prozedura eteteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuaren egoerari eta garapen-mailari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (5. or.).
- Galdera, minbizia diagnostikatzeko eta tratatzeko azken belaunaldiko ekipoak Nafarroako osasungintza publikorako eroste aldera Amancio Ortega Fundazioak dohaintzan emandako diruaren erabilerari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Tuterako Canrasoko eta Santa Anako zelaietan pinuak “matarrasa” bidez botatzeari buruzkoa. Rubén Velasco Fraile jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitalegunean Banco Santanderren bulego bat paratzea aintzat hartzeko arrazoiei buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Gobernuak nahi duen polizia-ereduari buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroan jatorriaren eta kulturaren aniztasunarekin loturik dauden errealitate guztiei erantzuteko eta kultur aniztasunerako eta bizikidetasunerako plan bat taxutzeari buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (8. or.).
- Galdera, 2020an Nafarroan erregulartasunez esportatzen duten mila enpresa baino gehiago egon dadin lortzeko egiten ari diren urratsei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (8. or.).

- Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak mankomunitatei eta oinarrizko gizarte zerbitzuei igorritako finantzaketa-hitzarmen berriei buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako Gradua ezartzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (10. or.).
- Galdera, UAGN-Nafarroako Nekazarien eta Abeltzainen Batasunari lotutako AMUR-Nafarroako Landa-eremuetako Emakumeen Elkarteak Fundagro Fundazioak kudeatzen zituen diru-laguntzak kobratzeko ziurtagirien ustezko faltsutzeari buru (11. or.).
- Adolfo Araiz Flamariquejaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Ultzamako biometanizazio-plantaren proiektuaren ustezko gainfinantzaketari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroan errefuxiatutako familietako ikasleen berariazko beharizanei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (13. or.).
- Galdera, seme-alabak dituzten nafar familiek errentaren aitorpenean egiten duten ordainketari buruzkoa. José Javier Esparza Aburrea jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Alderdi Popularraren ETAREN gaineko jarrerari dagokionez Geroa Bairen eledunak egindako adierazpenei buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (14. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Unibertsitatean beren ikasketak jada egiten ari diren ikasleei datozen urteetan zuzenduko zaizkien beka-deialdietarako Hezkuntza Departamentuak baliatuko dituen irizpideei eta aurreikuspenei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitatean beren ikasketak jada egiten ari diren ikasleei datozen urteetan zuzenduko zaizkien beka-deialdietarako Hezkuntza Departamentuak baliatuko dituen irizpideei eta aurreikuspenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Maria Solana andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein dira Hezkuntza Departamentuak baliatuko dituen irizpide eta aurreikuspenak, Nafarroako Unibertsitatean beren ikasketak jada egiten ari diren ikasleei hurrengo urteetan zuzenduko zaizkien beka-deialdietarako?

Iruñean, 2017ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, lan-prekarietatea eta ezbehar-tasa murrizte aldera Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak hartutako neurriei buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, lan-prekarietatea eta ezbehar-tasa murrizte aldera Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko kide Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein dira Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak hartutako neurriak, nafar herritarren lan-prekarietatea eta ezbehar-tasa murrizte aldera?

Iruñean, 2017ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, “¿Qué es un Rey para ti?” eskola-lehiaketari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, “¿Qué es un Rey para ti?” eskola-lehiaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentariaren elkarrekin Marisa de Simón Caballero andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Zer parte-hartze izan du Hezkuntza Departamentuak “¿Qué es un Rey para ti?” eskola-lehiaketaren 36. saioaren antolaketan? Lehiaketa horren sariak jakitera emateko apirilaren 25eko prentsaurrekoa zergatik egin zen Hezkuntza Departamentuan eta Hezkuntzako zuzendari nagusia bertan agertuta?

Iruñean, 2017ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, funts publikoekin ordaindutako Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan haurrak 2017-2018 ikasturterako onartzeko prozedura eteteari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, funts publikoekin ordaindutako Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan haurrak 2017-2018 ikasturterako onartzeko prozedura eteteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak zergatik eten du, funts publikoekin ordaindutako Haur Hezkuntzako lehen zikloko (0-3 urte) ikastetxeetan, 2017-2018 ikasturterako onartze-prozesua?

Corellan, 2017ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuaren egoerari eta garapen-mailari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuaren egoerari eta garapen-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zein dira azaroaren 16ko 103/2016 Foru Dekretuaren egoera eta garapen-maila, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duenarena, sexu bereko bikotean edo gizonezko bikotekiderik gabe bizi diren emakumeendako eta bikote trans heterosexualendako ugalkortasun- eta ugalketa-tratamenduei dagokienez?

Iruñean, 2017ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, minbizia diagnostikatzeko eta tratatzeko azken belaunaldiko eki- poak Nafarroako osasungintza publikorako eroste aldera Amancio Ortega Fundazioak dohaintzan emandako diruaren erabilerari buruz- koa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, minbizia diagnostikatzeko eta tratatzeko azken belaunaldiko eki-
poak Nafarroako osasungintza publikorako eroste aldera Amancio Ortega Fundazioak dohaintzan emandako diruaren erabilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zein da minbizia diagnostikatzeko eta tratatzeko azken belaunaldiko eki-
poak Nafarroako osasungintza publikorako eroste aldera Amancio Ortega Fundazioak dohaintzan emandako diruaren erabilera?

Iruñean, 2017ko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Tuterako Canrasoko eta Santa Anako zelaietan pinuak “mata- rrasa” bidez botatzeari buruzkoa.

RUBÉN VELASCO FRAILE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Rubén Velasco Fraile jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Tuterako Canrasoko eta Santa Anako zelaietan pinuak “matarrasa” bidez botatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Rubén Velasco Fraile jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, galdera hau aurkezten du, hurrengo Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneke, Ingurumeneke eta Toki Administrazio kontseilariak ahoz erantzun dezan.

Zer arrazoi eta irizpide tekniko eta ingurumeneke direla-eta bota dira “matarrasa” bidez pinuak (Pinus Halepensis) Tuterako Canrasoko eta Santa Anako zelaietan?

Iruñean, 2017ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Rubén Velasco Fraile

Galdera, Nafarroako Ospitalegunean Banco Santanderren bulego bat paratzea aintzat hartzeko arrazoiei buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitalegunean Banco Santanderren bulego bat paratzea aintzat hartzeko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer arrazoi egon da Nafarroako Ospitalegunean Banco Santanderren bulego bat paratzea aintzat hartzeko?

Iruñean, 2017ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Gobernuak nahi duen polizia-ereduari buruzkoa.

SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuak nahi duen polizia-ereduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioko Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Gobernuak zer polizia-ereduren aldeko apustua egiten du?

Iruñean, 2017ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Galdera, Nafarroan jatorriaren eta kulturaren aniztasunarekin loturik dauden errealitate guztiei erantzuteko eta kultur aniztasunerako eta bizikidetasunerako plan bat taxutzeari buruzkoa.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan jatorriaren eta kulturaren aniztasunarekin loturik dauden errealitate guztiei erantzuteko eta kultur aniztasunerako eta bizikidetasunerako plan bat taxutzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osoko Bilkurak 9-16/MOC-00179 espedientezenbakiko mozioa onetsi zuen 2016ko otsailaren 16an; horrenbestez, Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuak kultur aniztasunerako eta bizikidetasunerako plan bat taxutu behar du, Nafarroan jatorriaren eta kulturaren aniztasunarekin loturik dauden errealitate guztiei erantzuteko.

Gizarteratze-politikak kontuan hartuko dituen plan bat izanen da, herritar guztiei eskubide- eta aukera-berdintasuna bermatzeko; baita bizikidetzarekin eta gure aniztasun osoaren elkar-egokitzarekin lotutako politikei dagokienez ere.

Eperik ezarri ez bazen ere, honako hau jakin nahi dugu:

Zer urrats egin dira plan hori taxutzeko? Nor ari da horretan?

Nolakoa izanen da inplikaturik dauden eragile ezberdinen parte-hartzea? Zer epe aurreikusten dira hori egiteko?

Iruñean, 2017ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, 2020an Nafarroan erregularitasunez esportatzen duten mila enpresa baino gehiago egon dadin lortzeko egiten ari diren urratsei buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, 2020an Nafarroan erregularitasunez esportatzen

duten mila enpresa baino gehiago egon dadin lortzeko egiten ari diren urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Guzmán Garmedia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, 2017ko maiatzaren 4ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Apiril honetan bertan, Nafarroako Gobernuak 2017tik 2020ra bitarteko Nazioartekotze Plan berriaren zirriborroa aurkeztu du. Planaren aurkezpenean, Gobernuko lehendakariorde eta Garapen

Ekonomikorako kontseilariak nabarmendu zuen planak helburu duela, besteak beste, Nafarroatik erregulatasunez esportatzen duten mila enpresa egon daitezen lortzea 2020an.

Nafarroako Gobernuaren ustez, urrats egokiak egiten ari al da Nafarroan erregulatasunez esportatzen duten mila enpresa baino gehiago egon dadin 2020an?

Iruñean, 2017ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak mankomunitateei eta oinarrizko gizarte zerbitzuei igorritako finantzaketa-hitzarmen berriei buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Eskubide Sozialetako Departamentuak mankomunitateei eta oinarrizko gizarte zerbitzuei igorritako finantzaketa-hitzarmen berriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau egiten du, 2017ko maiatzaren 4ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Joan den martxoaren 28an eta 29an, Eskubide Sozialetako Departamentuak bilera bana egin zuen Iruñean eta Tuteran, Nafarroako mankomunitateetako edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako ordezkariekin, haiei informazioa ematearren 2017ko urtarriletik aitzina eta urte anitzeko iraupearekin indarrean egonen ziren finantzaketa-hitzarmen berriei buruz; izan ere, orain arteko hitzarmenen indarraldia 2016ko abenduan bukatu zen.

Toki-entitateek handik hilabetera jaso dituzte hitzarmen horiek, sinatzeko.

Datu horiek ikusita, hauxe da gure galdera:

– Zer berritasun dakarte Eskubide Sozialetako Departamentuak mankomunitate eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuei igorritako finantzaketa-hitzarmen berriei?

Iruñean, 2017ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako Gradua ezartzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako Gradua ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioaren izenean eta Legebiltzarreko Erregelamenduak diosenari jarraiki, honako ahozko galdera egin nahi dio Nafar Gobernuari, Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Akordio programatikoak konpromiso argia jasotzen du Medikuntza Gradu publikoa ezartzeko aukera serio eta sakon aztertzeke. Ildo honetan, gai honekin lotutako hainbat galdera eta agerraldi izan ditugu legegintzaldian zehar.

Hain zuzen, iragan urtarrilaren 10ean Mendoza Kontseilariak Hezkuntza Batzordean azalpenak eman zituen orain arte egindakoaz, eta hainbat konpromiso ere azaleratu zituen. Hainbat bilera izan zirela aipatu zuen, eta lantalde bat sortzeko asmoa aipatu zuen, Garapen Ekonomikorako, Osasun eta Hezkuntza Departamentuez gain, NUPeko Errektoretza ere bilduko zuena. Lantalde

horrek garatu beharreko lan batzuk ere aipatu zituen.

Talde parlamentario honen aburuz, oso berandu ekin zaio afera honi, eta bideragarritasun azterketa egitea ezin da gehiago atzeratu, honezkero egina beharko zuelako. 2009an NUPek berak enkargatutako txostena izan daiteke abiapuntua, betiere kontuan hartuta datuak eta bestelako alderdi batzuk gaurkotu beharko lirartekeela.

Momentu klabea da NUPentzat, bere etorkizuneko argazkia definitzen ari delako, titulazio berriak txertatuz, eta plangintza osoa eginez. Errektoreak berak maiz esan du Gobernu osoaren inplikazioa behar dela gradua ezartzeko, beharrezko inbertsioa egiteko konpromisoa hartuta. Hortaz, erabaki akademiko eta politikoak hartzeko garaia delako, iragan osteguneko plenoan mozioa aurkeztu genuen, eta honako erabaki proposamenaren onartu zen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio, NUPeko arduradunekin elkarlanean, Medikuntza Gradua NUPen ezartzeko aukera sakonki eta xeheki aztertzeke. Horretarako, 2009an egindako bideragarritasun plana gaurkotu egingen du, aldagai guztiak egokituz, aztertuz eta objektiboki arrazoituz. Gobernuak Bideragarritasun Plan berria eta gaia lantzeko osatutako lantalde horrek egindako hausnarketa eta ateratako ondorioak sei hilabeteko epean aurkeztuko ditu Nafarroako Parlamentuan.”

Zein da Nafarroako Gobernuaren disposizioa eta asmoa NUPen Medikuntza Gradua ezartzeari dagokionez? Zein dira orain arte emandako urrats zehatzak? Eta hemendik aurrerakoak?

Iruñean, 2017ko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, UAGN-Nafarroako Nekazarien eta Abeltzainen Batasunari lotutako AMUR-Nafarroako Landa-eremuetako Emakumeen Elkarateak Fundagro Fundazioak kudeatzen zituen diru-laguntzak kobratzeko ziurtagirien ustezko faltsutzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUEJAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, UAGN-Nafarroako Nekazarien eta Abeltzainen Batasunari lotutako AMUR-Nafarroako Landa-eremuetako Emakumeen Elkarateak Fundagro Fundazioak kudeatzen zituen diru-laguntzak kobratzeko ziurtagirien ustezko faltsutzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak Gobernuko lehendakariari zuzendutako gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2017ko maiatzaren 4an egin beharreko kontroleko Osoko Bilkuran izapidetzeko:

Azken egunotan argitaratutako informazioen arabera, Iruñeko 1. Instrukzio Epaitegian ikerketa judiziala egiten ari dira UAGN-Nafarroako Nekazarien eta Abeltzainen Batasunari lotutako AMUR-Nafarroako Landa-eremuetako Emakumeen Elkarateak ustez faltsutu egin dituelako sindikatu horrek sortutako Fundagro Fundazioak kudeatzen zituen diru-laguntzak kobratzeko ziurtagiriak.

Informazio horiek ikusita, eta kontuan hartuta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuko kontseilari izandako Begoña Sanzberro andreak eta José Javier Esparza jaunak 2011n eta 2013an egindako jarduketak, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu dut:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du hori dela-eta argitaratu diren informazioez? Nafarroako Gobernuak ba al du biktima edo parte kaltetu gisa pertsonatzeko asmorik Iruñeko 1. Instrukzio Epaitegian egiten ari diren aurretiazko eginbideetan, hain zuzen ere Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak AMUR-Nafarroako Landa-eremuetako Emakumeen Elkarateari, zeina UAGN-Nafarroako Nekazarien eta Abeltzainen Batasunari lotuta baitago, emandako diru-laguntzei buruzkoetan?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Ultzamako biometanizazio-plantaren proiektuaren ustezko gainfinantzaketari buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Ultzamako biometanizazio-plantaren proiektuaren ustezko gainfinantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak 2017ko maiatzaren 4ko kontroleko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Iragan ostiralean, Kontuen Ganberak Iraizotzen dagoen Ultzamako biometanizazio-plantari

buruzko txosten bat igorri zion Parlamentuari. Biometanizazio-planta hori, 4,5 milioiko gastua daukana guztira, diru publikoarekin finantzatu zen nagusiki.

Txostenaren arabera, irregulartasun larriak gertatu ziren Ultzamako Udalak 2007tik aitzina egindako kudeaketan. Ganberaren arabera, legezkotasun-printzipioaren aurkako jarduketak egin ziren kontratazioaren arloan, eta bi hornitzailei kontzeptu beragatik egindako ordainketa bikoiztuak ere detektatu dira; hori dela-eta, kasua Fiskaltzari igorriko diola ere iragarri du.

Txostenak Foru Administrazioaren jarduketa onesten baldin badu ere, proiektuaren ustezko gainfinantzaketa iradokitzen du, parte batek Industria Departamentuaren nahiz Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren laguntzak jaso zituelako.

Horregatik guztiagatik,

Gobernuak neurririk hartzeko asmorik al du, egiaztatze aldera ea benetan gertatu ote den proiektu horren ustezko gainfinantzaketa hori?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, Nafarroan errefuxiatutako familietako ikasleen berriazko beharrezanean buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Nafarroan errefuxiatutako familietako ikasleen berriazko beharrezanean buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarrekin Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Gobernuak 2017ko maiatzaren 4ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroan errefuxiatutako familietako kideak gure erkidegoko hainbat ikastetxetan eskolatu dira. Begi-bistan dago ikasle horiek curriculum nahiz antolamendu arloko harrera-neurriak behar dituztela ikastetxeetan. Berezkoak ez dituzten aztura, ohitura eta hizkuntzetara egokitu beharra daukaten ikasleak dira horiek. Ezinbestekoa da ikasle horientzako gizarteratze-plan bat taxutzea, bai eta kasuan kasuko harrera-plan bat ere, ikasle bakoitzaren egoera sozial, familiar eta indibidualaren arabera.

Hezkuntza Departamentua konpentsazio positiboko zer neurri ari da garatzen edo garatzeko asmoa du, Nafarroan errefuxiatutako familietako ikasleen berriazko beharrezanean erantzunen dien kalitatezko hezkuntza-arreta eskaintzeko? Hezkuntza Departamentuak ikasle horien hezkuntza-beharrezanean baloraziorik egin al du? Ikasle horiek hartzen dituzten ikastetxeei berriazko baliabiderik emanen al zaie?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, seme-alabak dituzten nafar familiek errentaren aitortzean egiten duten ordainketari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, seme-alabak dituzten nafar familiek errentaren aitortzean egiten duten ordainketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak erantzun diezaioten:

– Gobernuak neurririk aurreikusitako seme-alabak dituzten nafar familiek errentaren aitortzean ez larrutzeko?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Nafarroako Alderdi Popularraren ETaren gaineko jarrerari dagokionez Geroa Bairen eledunak egindako adierazpenei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Alderdi Popularraren ETaren gaineko jarrerari dagokionez Geroa Bairen eledunak egindako adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan apirilaren 24an, astelehenez, honako hau esan zuen Geroa Bairen eledunak prentsaurreko batean: "Ematen du Nafarroako Alderdi Popularra erosoago sentitzen zela ETA armadun batekin, ETA armagabetu batekin baino".

Nafarroako Alderdi Popularretik adierazpen horiek jendaurrean zuzentzeko eskatu genion, baina oraindik ez du halakorik egin.

Bat al zatoz adierazpen horiekin? Ezezkoan, eskatuko al diozu esandakoa publikoki zuzentzea?

Iruñean, 2017ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

